

## EUSKEREAREN BAKUNTZEAZ

---

Gauza egokia deritzat, ain eñaza ezpada bere, euskera bat egin eta erabiltzea. Izkera bati berez datoñkio aldakoña izatea; batez bere elerti ugariaz *geratua* ezpadago. Edozein erkik, eñik, sendik, lagunek berarizko mintzoera dauko, berarizko arpegi-antza dauan bezelaxe. Arpegi onek, oñen ezbardinñak direala, ¿nok eta zelan bardindu? ¿Nok eta zelan biurtu Napañoa-Eñiberako arpegi zoñotz me begibixiak Bizkaiko baseñitaren zabalkote mardul setara? Euskalki guztiakaz bat egitea oñixe baizen araso gaitza ta zaiña litzakeala uste dot. Bat egin ta bere, laster euskera bakañ ori erki bakoitzean bere lengo setara etoñiko etedan bilduñ naz. Onelan ta guzti bere araidatxo bat (sayaldi txiki bat) egin giñaike euskalki guztiakaz bat egin edo eurak alkañ uferatzeko. Dana dala kalterik eztau ekañiko.

Egitekotan ona nire ustez gogoan euki beañ direan gauzak:

**Lenengo.** Euskerearen banatasuna aditz-yokatzetan bakañik dago. Aditzak eurak, izenak, sendiñak ta itz-eraskin (accidentes gramaticales) guztiak bardin dagokioez euskalki guztiak. Beraz euskalidazle orok bardin erabili beañ dabez. Esaterako aitaita (B), aita-jaun (B), aitona (G), aiño (R), ta aitaundi (S); berba (B), itz (A N, B N, G...); yausi (B), erori (A N, G...); lege (B), bezela (A N, G...) eta abañ (1).

---

(1) Itz-labuñerak Azkue Yaunaren «Dic. V. E. F.» tik artuak dira.

**Bigarren.** Al dala euskalki bat, besteak itxita, aukeratu baño lenago, direanakaz bat legikean ala ez ikusi bear da. Bat egin edo alkar uferatu leitekez, bizkaierazko aditz-urgazlean (en el verbo auxiliar) «y» = «x», eta «k» = «y» eginezkero. Bizkaiereak bere aizten «z» saritan «x» egiten dau: izan, ixan; gizon, giñon, eta abar. Emendik agiri da ba onezkero bizkaitaŕen aditzeko «y» lenago «x» izan zala. Onegaitik bezte euskalkiak *zait* eta *zayo* idazten daben lekuan bizkaitaŕok *xait* eta *xayo* idatzi bear genduke, ez *yaf*, *yako* ta abar.

Gipuzkoaŕen «j» ia Bizkai guztian «y» entzuten da: *joan*, *yoan*; *jantzi*, *yantzi*, eta nik eztakit zegaitik gipuzkoaŕak «y» daben lekuan, lenago «j», orain «k» erabili daroagun. Itzen asieran «y» saleak garen legez, tartean bere izan gaitezen.

Euskaltzaindiak erabagiko dau gero beste euskalkietako «z», «x» egin al baliteke edo ez. Onela eukiko gendukez, bear bada, *zait* eta *yaf*-en ordez *xait*; *zayo*, *yako* ta *zako*-ren ordez, *xayo*; *dezagun* ta deigun edo *deygun*-ordez *dexagun*; *beza* ta *bei* edo *bey*-ordez *bexa*; *lezake* ta *leike* edo *leyke*-ordez *lexake*, eta abar.

Jakina da, bizkaiera ta bezte euskalkiak batera dotozanean, ezer aldatu bearik eztagola. Onela *lezake* ta *leike*-ofen *k* orain artean bezela erabili bear da.

Emendik argiro agiri da bezte euskalkiak urgazletzat *izan* edo *za*-daben lekuan bizkaiereak *ixan* edo *xa*-dauala, ez *egin*, Euskal-Izti batzuetan ikusi oi dan lez.

Bekus Euskaltzaindiak era onetara alkaritu litezkean ala ez aditzaren bezte aldi batzuk; esaterako: *dizut* (G), *deizut* (S), *dautzut* (B, L); *diotsat* (G, L), *deitsot* (S), *dautsot* (B), eta abar.

**Irugañen.** Euskalkiak ezin alkartu direanean, ondo deritzat Gipuzkoerea aukeratzea elerti-idaztietan erabilteko. **A)** Euskerea galtzekotan (Jaunak ez dexala gura ixan), beluen galduko dalako. **B)** Nik dakidanez, bizkaitařak eta bezte euskaldunak eřazago ikasten dabe gipuzkoerea, gipuzkoařak beste euskalkiak baño. Nire ikastaroan bizkaitař eta gipuzkoař asko izan dodaz lagun, eta bizkaitar geyenok saiatu gara gipuzkoera ikasten, gipuzkoařik bat bere ez gure euskera ikasten. **D)** Euskaldunak eztireanentzat eřazago egiten xaye, politago bere bai gipuzkoerea beste edozein euskalki baño.

**Laugañen.** Auzi onetan Euskaltzaindiak egoki dan erabagia artu ta lenbailen idatziko ditu Euskal-lzti bi, bata labuřtxoa, eskoletan ikasia izanik, euskaldun ume guztiak oitu daitezcan *euskera bakar bat* erabilten; bestea aundiagoa, gure mintzo gozo estitsu au maite dogunontzat.

## ITZ BITAN

Euskalki guztiakaz bat egitea ondo deritzat; ain eřaz ezpada bere. Baña egitekotan gogoan euki beař dira:

*Lenengo.* Euskerearen banatasuna aditz-yokatzean bakarařik dago. Euskalki ħateri, *batez bere*, dagokiozan berbak, beste euskalkietan (ain saři ezpada bere) entzuten dira. Gipuzkoa guztian dakie *yausi* zer dan, Bizkaian bere bai *erori* zer dan. Napařoan *txausi* esan oi daroe leku askotan.

*Bigañen.* Al bada, aditz-yokatzzea euskalki guztietan bardindu, edo beintzat alkař uřeratu beař da. Bakoitzak bere euskerea maite dabela, onelan min

gitxiago emongo dautso danaren osasunerako berea izteak.

*Irugañen.* Bardindu ezin danean, gipuzkoerea autetsi daiteke; euskera ilten bada (Jaunak ez dexala gura izan) gipuzkoera besteak baño beranduago ilgo da; ta ganera erazago ta politago dala esan lexake. Erázoí oneik euskeraren azaletikoak dirala ondo dakust, baña nire ustez indaírik asko dauke geure mintzo au maite dogunok gipuzkoera aukeratzera beartzeko.

*Laugañen.* Auzi onetan, beaí dan erabagia artuta, Euskaltzaindiak Euskal-Izti bi egingo ditu: bata txikia umeentzat, bestea aundia nagosientzat, guztiok zer egin yakin daigun.

MADARIAGATAÍ ANGERU ABA, O. F. M.

Arantzazu (Gipuzkoa) 1920-ko Lotaziáren 20-an.

---